



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO OSOKO BILKURAK EUKALIPTOA LANDATZEKO DEBEKUA LAU URTEZ LUZATZEA ONARTU DAU

- Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Elkarrekin Bizkaia eta Talde Berezia-PP Bizkaia taldeen aldeko botoakaz Bizkaiko parlamentuak 2025eko abenduaren 31ra arte zugatz-espezie hori landatzeko debekua onartu dau.
- Aldundiari eusten deutsien Batzar Nagusietako talde biek eta Elkarrekin Bizkaiak testuan sektorea konpentsetako neurriak sartzea adostu dabe.
- Uri Lurren Balio Gehikuntzaren ganeko Zergaren inguruko Bizkaiko araudia aldatzeko EH Bilduk aurkeztutako arauzko foru proposamena aintzat hartzea onartu dau Bizkaiko parlamentuak.
- Gizarte Ekintza Sailak martxan jarri dauen egoitzetako bizikidetzak-unitadeen inguruan ebaluazino-txostena egitea be onartu da.
- Bizkaiko Batzar Nagusiek Guatemalan gertatutakoaren inguruko Erakunde-Adierazpena irakurrita ekin deutsie ohiko osoko bilkurari. Adierazpen horretan, giza eskubideen defendatzaileen kontrako kriminalizazinoa eta estigmatizazinoa bertan behera itzi daizala eskatzen jako Guatemalako Gobernuari, modu berezian, komunikazino-eskubidearen defendatzaileen kontrakoak, eta persona horreei alkartasuna adierazoten deutse.

(Gernikan, 2022ko apirilaren 13an). Bizkaiko Batzar Nagusien osoko bilkurak Mendiei eta babespeko naturguneen administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Araua aldatzea onartu dau gaur Gernikan, Bizkaian eukaliptoak landatzeko debekua lau urtez luzatzeko, 2025eko abenduaren 31ra arte. Foru Aldundiaren araudia aldatzeko planteamenduak Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Elkarrekin Bizkaia eta Talde Berezia-PP Bizkaia batzarkide-taldeen babesa izan dau.

Aldundiari eusten deutsien taldeen eta Elkarrekin Bizkaiairen arteko akordioak baso-eredu jasangarrirantz joan gura daben mendien jaubeak konpentsetako neurriak sartu ditu. Erdibideko zuzenketa-eskeak debekuaren luzapena babestu daben Bizkaiko parlamentuko taldeen babesa izan dau.

Amaia Antxustegi Ziarda Iraunkortasuneko eta Natura Inguruneko foru diputatuak azaldu dauenez, baso-politikea diseinetako lehenengo pausua da; izan be, “foru arau



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

osoa lantzen ari gara”, eta datozan urteetan ezarriko dan basogintzako politikak dimentsino anitzekoa izan beharko dau, landa-garapena bultzatzea, produkzio-sektorea mantentzea eta enpleoa sortzea bultzatzeko helburua dauen ikuspegi sozioekonomikoa integratuz, eta, beste alde batetik, ingurumenaren kontserbazioa bultzatuz, basoko espezieen arteko orekaren bidez.

Debekua luzatuta, Eukaliptoaren hedapena geldiarazo gura da Bizkaian, ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen oreka zaintzeko baso-antolaketarako tresnak onartu eta araudia egokitzen dan bitartean, esaterako, Mendiei buruzko Foru Arau barria atara arte. Diputatuak azaldu dauenez, arauaren aldaketea “aurretiazko Kontsulta Publikoko prozesuaren ostean egin da. Prozesu horretan sektoreko hainbat erakundek, ekoizlek, ingurumen-kolektibok, komunitade zientifikoak eta teknikoak eta norbanakoek parte hartu dabe, eta horreen guztien eta herritarren eretxiak jaso dira”.

Arau-aldaketak banda marroiak pinuan eragin dauen gaixotasunak areagotu dauen espezie hori zabaltzeko prozesua geldiarazo gura dau; izan be, 2020an Euskal Autonomia Erkidegorako egindako Baso Maparen arabera, “hazkunde bizkorreko konifera horrek hartzen dauen azalerea guztizkoaren % 15,6 da”, diputatuak adierazo dauenez.

Datu horreek emon ostean, diputatuak adierazo dau arau-aldaketea xedapen barri baten bidez egituratuko dala. Xedapen horrek adierazoten dauenez: “aldi baterako neurri legez, 2025eko abenduaren 31ra arte, bakarrik baimenduko da Eucalyptus generoko basobarritzeak egitea barritu nahi dan sailean lehen be zegoan masa genero horretakoa bazan huts-hutsean edo mistoa izanik ha bazan nagusi –% 50 baino gehiago–, eta, beti be, aurreko landaketak egitean indarrean zegoan araudi sektoriala errespetatu bada.” Diputatu andreak ganeratu dau, “xedapen gehigarri hau Osoko Batzar honetan onartu eta egun gitxira sartuko dala indarrean”, eta “erlojuaren kontra aritu dirala, debekuaren luzapena ahalik eta bizkorren sartu daiten indarrean”.

EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaiak kritikau egin dabe aurkeztutako zuzenketa-eskeen artean bakarra onartu izana eta beste gai batzuei buruz aurkeztu dituen beste asko onartu ez izana. Gai horreen artean egozan, esaterako, debekuaren luzapena zabaltzea, luzapenaren arrazoi “zehatzak”, eukalipto espezie inbaditzaile moduan katalogatzea, lurzoru publikoen eta pribaduen arteko tratamendu berezia, edo 2025etik aurrerako etorkizuneko asmoei buruz aurkeztutako zuzenketa. EH Bilduk adierazo dau debekuaren luzapenak “ez dauela urteetatik datorren arazoa konponduko”, baina “tresna egokia” izan daitekeala denpora bitarte horretan arau osoaren ganeko hausnarketea egiteko; foru arau hau onartzeagaz pozik dagozala ganeratu dabe.

Elkarrekin Bizkaiak adierazo dau, euren eretxiz, aurkeztu daben bigarren zuzenketa-eskea “asmo handiagokoa zala”, debekua Baso-plana egin arte luzatzea proposatzen



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ebalako. Araua onartu dan moduan onartuta, luzapenaren “arrakastea, edo arrakastarik eza”, 4 urte barru ikusiko dala generatu dabe.

Aldundiari eusten deusien taldeek “ona” dan arau baten ganean egin dabe berba, orain arte egindakoa “errespetetan” dauelako eta eukaliptoa zabaltzea “geldiarazoten” eta bertako espezieen azalerea zabaltzearen alde egiten dauelako. Jesus Lekerikabeaskoa Arrillaga bozeroale jeltzaleak adierazo dau “debekuaren luzapena ez dala berez konponbidea, eta ez dala horizonte barik landatu behar”, eta “egoerak okerrera ez egiteko neurria” dala generatu dau.

Azkenik, Talde Berezia-PP-Bizkaiak adierazo dauenez, “debekuaren luzapena funtsezkoa zan”, eta “foru arau proiektu ona da, mendiak kontserbetea ahalbidetuko dauelako eta egurraren sektorearen ekoizpen-helburuakaz bateragarria dalako”. Ganera, eztabaidea “interesgarria eta produktiboa” izan dala esan dau.

PLUSBALIOAREN GANEKO ZERGEA URI-LURRETAN

Bizkaiko Batzar Nagusietako osoko bilkurak 8/1989 Foru Araua aldatzearen inguruko EH Bildu taldearen foru arau proposamena aintzat hartzea onartu dau, Uri-lurren Balio Gehikuntzaren ganeko Zergari buruzkoa. Batzar Nagusietako Talde Berezia-PP Bizkaia taldea izan da ekimenaren kontra agertu dan bakarra, aurka egoteko arrazoitzat agertuz proposamenak udalak kontuan hartzen dituan arren, herritarrak ez dituala kontuan hartzen, “herritarrak eurak izanik zergea ordaindu behar dabenak”. Modu berean, fiskalidadeari jagokonez, beste taldeakaz alderatuta, oso ikuspegi desbardinak dituela adierazo dau Talde Berezia-PP Bizkaia taldeak, ez dabelako uste administrazio publikoaren kudeaketa txarra herritarrei zergak igotearen bitartez konpondu behar danik.

EH Bilduko Arantza Urkaregi Etxepare batzarkideak 8/1989 Foru Arauan Uri-lurren Balio Gehikuntzaren ganeko Zergaren karga-tasea mugatzen dauen artikulua aldatzea proposatzeko arrazoiak azaldu ditu. Aldaketa horren bidez, udalek, udal-autonomiaren printzipioa aplikauta, zergaren karga-tasea udal baktaren ezaugarri espezifikoen arabera aldatu daikie, eta orain dala gitxi onartu dan “7/2021 Foru Dekretu Arauemailearen ondorioz sortutako kaltea konpondu daiteke”, EH Bilduko bozeroalearen esanetan. Generatu dau udalei autonomia handiagoa emon behar jakela eta hori bat datorrela Batzar Nagusietako Euzko Abertzaleak taldeak defendiduten dauenagaz; era berean, argitu dau ez dabela udalen diru-sarrerak handitzea planteatzen, horreei eustea baino.

Batzar Nagusietako Elkarrekin Bizkaia taldeak uste dau zergak higiezin espekulazioa “hoztu” daikela, eta udalerrien finantziazio-eskasia konpondu egin behar dala, Xabier Benito Ziluaga batzarkideak adierazo dauenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Batzar Nagusietako Euzko Abertzaleak taldeak, proposamena kontuan hartzea babestu dauen arren, adierazo dau alderdia ez datorrela bat EH Bilduk aurkeztu dauen foru arauaren proposamenaren oinarriagaz, ez datorrelako bat haren arrazoi nagusiagaz. Unai Lerma Mentxaka bozeroaleak adierazo dau udalen diru-bilktearen murrizketea ez dagola bakarrik tasa aplikagarriaren menpe, faktore gehiagoren menpe be badagoala; eta aplikau behar dan tasea eztabaidatzeko prest dagozala generatu dau, “uste dogulako aukerea emon behar dala tipoei buruz eztabaidatzeko, arauaren goitik beherako barrikuspena heldu arte”. Horri jagokonez, Lerma Mentxaka batzarkideak adierazo dau ez dauela ulertzen Elkarrekin Bizkaia taldeak zelan esan leiken Bizkaiak gehieneko tasea generako lurraldeetako batez bestekoaren azpitik daukala.

Azkenik, Batzar Nagusietako Euskal Sozialistak taldeak “positibotzat jo dau foru arauaren proposamena aintzat hartzearen inguruan lortutako adostasuna”, hondino be aurretik “lan handia” dagoala generatuz. Zergen harmonizazinoa be aitatu dau “zergen kudeaketa eraginkorragoa lortzeko tresna” moduan.

ADINEKOEN EGOITZAK

EH Bilduk aurkeztu dauen mozino bat onartu dau Ososko Batzarrak, aldeko 42 botogaz. Gizarte Ekintza Sailak martxan jarritako bizikidetza-unidadeei buruz Aldundiak ebaluazino-txostena egitea eskatzen zan mozinoan.

Batzar Nagusietako EH Bildu taldeak azaldu dauenez, mozinoaren arrazoia egoitzen eredu barriak mendekotasuna daukien persona guztiei (mendekotasuna handia daukienei, adibidez) erantzun ezin izatea da. Egoitzaratuen profila gero eta konplexuagoa da, Izaskun Duque Santacoloma bozeroaleak azaldu dauenez, adibidez, desgaitasun funtzionala daukien personak be artatzen diralako eta horreek premia konplexuagoak dituelako. “Beharbada, lan taldea berrikusi beharko da, eta, horretarako, beharginen ratioak berrikusi beharko dira dekretuan, eta behargin gehiago hartu”, ondorioztatu dau batzarkideak.

Elkarrekin Bizkaia abstenidu egin da, “ez dauelako alderik ikusten aurreko ereduaren eta oraingoaren artean”, baina taldeak txostenaren aldeko interesa agertu dau. “Egoitza eredu barrian gardentasun handiagoa egotea espero dogu”, esan dau Eneritz de Madariaga Martín bozeroaleak.

**EUROPAKO FUNTSEN JARRAIPENA ETA EGUNGO EGOERA
SOZIOEKONOMIKOAREN ETA POLITIKOAREN AURREAN HARTU BEHARREKO
NEURRIAK**



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onartu Europako funtsak gauzatzearen kontrolari eta jarraipenari buruz oposizionoko Talde Berezia-PP Bizkaia taldeak aurkeztu dauen mozinoa, eta, beraz, Aldundiak ez dau Europako funtsen gauzatzea kontrolatuko eta jarraitzeko organu bat sortzea bultzatuko.

Era berean, ez dira onartu EH Bildu taldeak “egoera sozioekonomikoari aurre egiteko hartu beharreko neurriei buruz” aurkeztutako mozinoa eta Elkarrekin Bizkaia taldeak “Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerreak Bizkaian dituan ondorioak arintzeko Foru Aldundiak abian jarri beharreko neurriei buruz” aurkeztutako mozinoa.

ERAKUNDE-ADIERAZPENA

Guatemalan izandako gertakarien aurrean, Bizkaiko Batzar Nagusiek alkartasuna adierazo deuse adierazpen-askatasunerako eskubidea eta herrien eta justizia sozialaren zerbitzurako komunikazio-eskubidea baliatzen daben herriei, defendatzaileei eta, bereziki, komunikabide komunitario eta alternatiboen komunikatzaileei; era berean Guatemalako Gobernuari eskatu deuse bertan behera itxi daizala giza eskubideen defendatzaileen eta, bereziki, komunikaziorako eskubidearen defendatzaileen aurkako kriminalizazioa eta estigmatizazioa.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

EL PLENO DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA APRUEBA UNA MORATORIA DE CUATRO AÑOS PARA LA PLANTACIÓN DE EUCALIPTO

- **El Parlamento de Bizkaia aprueba con el voto a favor de los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Elkarrekin Bizkaia y Grupo Mixto- PP Bizkaia, la prohibición de plantar esta especie arbórea hasta el 31 de diciembre de 2025.**
- **Los grupos junteros que sustenta al Gobierno foral y Elkarrekin Bizkaia acuerdan incorporar al texto medidas compensatorias al sector.**
- **La cámara vizcaína ha aprobado la toma en consideración de una proposición de norma foral de EH Bildu para modificar la normativa vizcaína sobre el Impuesto del Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.**
- **Se ha aprobado también la elaboración de un informe de evaluación sobre las unidades convivenciales de las residencias puestas en marcha por el Departamento de Acción Social.**
- **Las Juntas Generales de Bizkaia han iniciado el pleno ordinario con la lectura de una Declaración Institucional sobre los hechos acaecidos en Guatemala, donde insta al Gobierno de Guatemala a cesar la criminalización y la estigmatización contra personas defensoras de los derechos humanos, particularmente, defensoras del derecho a la comunicación, y expresa su solidaridad con éstas.**

(Gernika, a 13 de abril de 2022). El pleno de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado hoy, en Gernika, la modificación de la Norma Foral 3/1994, de 2 de junio, de montes y administración de espacios naturales protegidos, para incluir una moratoria de cuatro años en la plantación de eucaliptos en Bizkaia, concretamente, hasta el 31 de diciembre de 2025. El planteamiento de modificación normativa de la Diputación ha contado con el apoyo de los grupos junteros Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Elkarrekin Bizkaia, y el grupo Mixto-PP Bizkaia.

Un acuerdo de los grupos que sustentan al Gobierno y Elkarrekin Bizkaia, ha incorporado medidas compensatorias para los propietarios de montes que quieran



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

transitar hacia un modelo forestal sostenible. La enmienda transaccional ha contado con el apoyo de los grupos de la Cámara vizcaína que han apoyado la moratoria.

La Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Amaia Antxustegi Ziarda, ha explicado que es el primer paso para diseñar la política forestal, ya que se está “trabajando en la Norma Foral en su conjunto” y que la política forestal que se implemente en los próximos años deberá tener un carácter multidimensional, integrando la perspectiva socioeconómica tendente a impulsar el desarrollo rural, el mantenimiento del sector productivo y la generación de empleo, y por otra parte, a la conservación del medio ambiente a través de un equilibrio entre las diferentes especies silvícolas.

La moratoria pretende frenar la extensión del eucaliptus en Bizkaia en tanto en cuanto se aprueben los instrumentos de ordenación forestal necesarios para preservar un equilibrio medioambiental, económico y social y se adecúe la normativa correspondiente, entre ellas, una nueva Norma Foral de Montes. La modificación de la norma, ha explicado la diputada, “se ha realizado tras un proceso de consulta pública previa, en el que han participado distintas organizaciones sectoriales, productores y productoras, colectivos ambientalistas, la comunidad científica y técnica y particulares, habiéndose recogido las distintas opiniones de todas ellas y de la ciudadanía”.

El cambio normativo intenta poner freno a la extensión de esta especie, acrecentada por la enfermedad de la banda marrón en el pino, ya que según el Mapa Forestal elaborado para la Comunidad Autónoma del País Vasco en 2020, “la superficie ocupada por esta conífera de crecimiento rápido es de 15,6% del total”, ha señalado la Diputada.

Tras ofrecer estos datos, la Diputada ha señalado que el cambio normativo se articula a través de una disposición nueva que señala que, hasta el 31 de diciembre de 2025, estas plantaciones “únicamente estarán permitidas cuando la ocupación anterior del terreno objeto de la reforestación haya constituido una masa pura o mixta dominante – más del 50%– de este género, y siempre y cuando las plantaciones anteriores se hayan realizado respetando lo dispuesto en la legislación sectorial vigente.” Y ha añadido que “esta disposición adicional entrará en vigor en unos días, tras su aprobación en pleno” y también ha señalado que se ha estado “trabajando a contrarreloj para que la moratoria entrara lo antes posible”.

EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia han lamentado que solo se hayan aprobado una de las enmiendas presentadas, y que no se hayan estimado las que trataban sobre la ampliación de la moratoria, las razones “concretas” de la misma, su no catalogación como especie invasora, el tratamiento diferenciado entre suelos públicos y privados, o sobre las intenciones de futuro a partir de 2025. En concreto, EH Bildu ha señalado que



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

la moratoria “no va a arreglar un problema que se arrastra desde años”, pero ha apuntado que la moratoria puede ser “un instrumento adecuado” como periodo de reflexión de la norma en su conjunto, y que se alegran por su aprobación.

Elkarrekin Bizkaia ha indicado que la segunda enmienda que han presentado “era más ambiciosa”, a su juicio, ya que proponía alargar la moratoria hasta que se elaborase el Plan forestal, pero que de esta manera, “el éxito, o no” de la moratoria, se verá en 4 años.

Desde las filas de los grupos que sustentan al Gobierno se ha hablado de una “buena” norma, porque “respeta” lo hecho hasta ahora y apuesta por “frenar” la expansión del eucalipto y por extender la superficie de especies autóctonas. El portavoz jeltzale Jesús Lekerikabeaskoa Arrillaga ha señalado que “la moratoria per se, no es la solución, y que no se debe plantar sin un horizonte”, a lo que ha añadido que “es una medida para que la situación no empeore”.

Por último, el Grupo Mixto PP-Bizkaia ha señalado que “la moratoria era fundamental”, y que “es buen proyecto de norma foral, que permitirá una conservación de los montes y es compatible con los fines productivos del sector maderero”. Además, ha calificado el debate como “interesante y productivo”.

IMPUESTO DE PLUSVALIA EN TERRENOS DE NATURALEZA URBANA

El pleno de la Cámara vizcaína ha aprobado la toma en consideración de una proposición de norma foral del grupo juntero EH Bildu, sobre la modificación de la Norma Foral 8/1989, que aborda el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana. La iniciativa ha sido rechazada únicamente por el grupo juntero Grupo Mixto-PP Bizkaia, que ha señalado que la propuesta tiene en cuenta a los ayuntamientos, pero no a los ciudadanos, “que son los que tienen que pagar el impuesto”. Asimismo, ha indicado que tienen visiones muy diferentes en cuanto a fiscalidad con los otros grupos, y que una mala gestión de la administración pública, no se debe remediar con la subida de los impuestos a los ciudadanos.

EH Bildu, ha expuesto los motivos por los que proponen modificar el artículo que delimita el tipo de gravamen del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana en la Norma Foral 8/1989. Con esta modificación, los ayuntamientos podrían, en aplicación del principio de autonomía municipal, modificar el tipo de gravamen del impuesto en función de sus características específicas, y “reparar el daño causado por la reciente aprobación del Decreto Foral Normativo 7/2021”, ha señalado la portavoz Arantza Urkaregi Etxepare. En ese sentido, ha indicado que se debe dar más autonomía a los ayuntamientos, idea con la que coincide el grupo juntero



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nacionalistas Vascos, y ha aclarado que no proponen aumentar los ingresos de los municipios, sino mantenerlos.

El grupo juntero Elkarrekin Bizkaia, cree que el impuesto puede “enfriar” la especulación inmobiliaria, y que la insuficiencia de financiación de los municipios deber arreglarse con una revisión de la financiación municipal, ha declarado el juntero Xabier Benito Ziluaga.

El grupo juntero Nacionalistas Vascos, aunque ha apoyado la toma en consideración, ha señalado que el partido no comparte la base de la proposición de norma foral de EH Bildu, porque no va acorde con la razón principal. Además, han indicado que la reducción de la recaudación de los ayuntamientos no depende solo del tipo aplicable, sino que depende de más factores, aunque están abiertos a debatir el tipo. “Consideramos que hay que dar una oportunidad para discutir sobre los tipos, hasta que llegue la revisión integral de la norma que establezca los tipos”, ha concluido el juntero del grupo, Unai Lerma Mentxaka. En ese sentido, el grupo Elkarrekin Bizkaia, ha señalado que Bizkaia cuenta con el tipo máximo por debajo de la media del resto de los territorios, y que no lo entienden.

Por último, el grupo juntero socialista ha considerado la norma “positiva” por el consenso, aunque “queda mucho trabajo por hacer”, y ha hecho alusión a la armonización fiscal como “un instrumento para mayor eficacia de la gestión tributaria”.

RESIDENCIAS DE PERSONAS MAYORES

El pleno también ha aprobado con 42 votos a favor, la propuesta de EH Bildu para que el órgano ejecutivo elabore un informe de evaluación sobre las unidades convivenciales puestas en marcha por el Departamento de Acción Social.

El grupo juntero EH Bildu, ha explicado que el motivo de la moción se debe a que tal vez el nuevo modelo de residencias no pueda atender a todos los perfiles de personas dependientes, como por ejemplo a los grandes dependientes. El perfil actual es cada vez más complejo, ha explicado la portavoz, Izaskun Duque Santacoloma, porque, por ejemplo, también se atienden a personas con discapacidad funcional y tienen necesidades más complejas. “Tal vez se necesite revisar la plantilla y para eso hace falta revisar en el decreto los ratios de personal y añadir más personas trabajadoras”, ha concluido la juntera.

Elkarrekin Bizkaia se ha abstenido ya que “no ve las diferencias” entre el modelo anterior y el actual, pero han mostrado su interés en el informe. “Esperamos que haya



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

una mayor transparencia en el nuevo modelo de residencia”, ha dicho la portavoz, Eneritz de Madariaga Martín.

SEGUIMIENTO DE FONDOS EUROPEOS Y MEDIDAS A ADOPTAR ANTE LA ACTUAL SITUACIÓN SOCIOECONÓMICA Y POLÍTICA

Las Juntas Generales han rechazado una moción sobre el control y seguimiento de la ejecución de los fondos europeos, que ha sido presentada por el Grupo Mixto-PP Bizkaia, por lo que la Diputación, no se verá empujada a crear un órgano para el control y seguimiento de la ejecución de los fondos europeos.

Asimismo, también se han desestimado sendas mociones presentadas respectivamente por los grupos EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia sobre “las medidas a adoptar ante la situación socioeconómica” y sobre “las medidas a poner en marcha por la Diputación Foral para paliar los efectos en Bizkaia de la guerra entre Rusia y Ucrania”.

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

Ante los hechos acaecidos en Guatemala, las Juntas Generales de Bizkaia han expresado su solidaridad con los pueblos, las personas defensoras, y en particular, con las personas comunicadoras de medios comunitarios y alternativos que están ejerciendo el derecho a la libertad de expresión y el derecho a la comunicación al servicio de los pueblos y la justicia social, e instan al Gobierno de Guatemala a cesar la criminalización y la estigmatización contra personas defensoras de DDHH y, particularmente defensoras del derecho a la comunicación.